# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 2086

*AGINDUA, 2018ko martxoaren 22koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez esleitzen baitira Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2015eko azaroaren 20ko Aginduaren bidez deialdian jasotako lanpostuak. 2015eko azaroaren 20ko agindu horren bidez, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten mailako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia eta berariazko oinarriak onartzen dira. Lanpostu horiek «Lurralde Antolamendua, Lanak eta Garraioak, eta Trafikoa eta Babes Zibila» ezagutza-arlokoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeta daude.*

2015eko azaroaren 20ko Aginduaren bidez (azaroaren 30eko EHAA), I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten mailako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen. Lanpostu horiek «Lurralde Antolamendua, Lanak eta Garraioak, eta Trafikoa eta Babes Zibila» ezagutza-arlokoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeta daude.

Balorazio Batzordearen 2018ko martxoaren 5eko Erabakiaren bidez, behin betiko esleipen-proposamena onartu zen, eta erabaki zen 2015eko azaroaren 20ko Agindu horren bidez deialdian jasotako lanpostuen behin betiko esleipen-proposamena Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari bidaltzea, onar zezan, eta, ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Aurreko guztia dela bide, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.j) artikuluan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3. artikuluan esleitzen zaidan eskumena erabilita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2015eko azaroaren 20ko Aginduaren bidez deialdian jasotako lanpostuen esleipena, eta esleipen hori honen eranskinean jasotzea, publiko egiteko.

Bigarrena.– Kargutik kentzea eta destino berriez jabetzea 2018ko apirilaren 23an egingo da.

Hirugarrena.– Ezarritako datan norbait ez bada destino berriaz jabetzen, ulertuko da, karrerako funtzionarioa den aldetik, interes partikularraren zioz borondatezko eszedentzia eskatzen duela, eta egoera horretan dagoela deklaratuko du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien

Epaitegian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 22a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2015eko azaroaren 20ko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 20 de noviembre de 2015 Orrialdea /Página: 1

1. ERANSKINA ESLEITUTAKO LANPOSTUEN ZERRENDA
ANEXO 1. LISTADO DE PUESTOS DE TRABAJO ADJUDICADOS

| Eskatzailearen Izena<br>Nombre del Solicitante | Kidegoa<br>Cuerpo | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | Dot<br>Dot | Saila/Erakundea<br>Departamento/Org. | Adm.Egituraren atala<br>Centro Orgánico | Lan-egoitza<br>Destino | Puntuaz<br>Puntuac | Esleip.Zer.<br>Mot.Adjud. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ABIA PERUCHA, AGUSTIN MARIO | A02EU024 | 510930 | LUR.-ANTO. ARKITEK.<br>ARQ. ORD. TE. | 1 | INGURUMENA, LURRALDE<br>MEDIO AMBIENTE, PLAN | ETXEBIZITZA ETA ARKI<br>DIRECCIÓN DE VIVIEND | VITORIA-GASTEIZ | 215,450 | PU |
| AMUNDARAIN FERNANDEZ, OIHANA | A02EU028 | 510461 | OB. IN. MA.-LA. ARD.<br>R. OB, INST. Y MANT. | 3 | HEZKUNTZA<br>EDUCACIÓN | AZPIEGITURA, BALIABI<br>DIR. INFRAESTR., REC | VITORIA-GASTEIZ | 193,500 | PU |
| ARRIEN URIONDO, JUAN IGNACIO | A04EU005 | 510462 | IN. MA. LA. AR. ARD.<br>R. ÁREA DE IN. Y MA. | 2 | HEZKUNTZA<br>EDUCACIÓN | ARABA LURR. ORDEZK.<br>DELEG. TERR. ALAVA | VITORIA-GASTEIZ | 161,200 | PU |
| ARZAMENDI VARGAS, Mª FELICIDAD | A01EU | 510781 | TRAFIKO. LUR.-ARD.<br>RESP. TERR. DE TRÁF. | 1 | SEGURTASUNA<br>SEGURIDAD | TRAFIKO ZUZENDARITZA<br>DIR. TRAFICO | VITORIA-GASTEIZ | 206,900 | PU |
| AUZMENDI DOYHARZABAL, FRANCISCO J | A03EU | 510781 | TRAFIKO. LUR.-ARD.<br>RESP. TERR. DE TRÁF. | 2 | SEGURTASUNA<br>SEGURIDAD | TRAFIKO ZUZENDARITZA<br>DIR. TRAFICO | DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | 262,650 | PU |
| CABALLERO ARRIETA, MARIA | A02EU024 | 510942 | OBRA ERAI. ARLO-ARD.<br>RES. ÁREA OB. Y CON. | 5 | INGURUMENA, LURRALDE<br>MEDIO AMBIENTE, PLAN | ETX.LUR.ORD-GIPUZKOA<br>DE.TER.VIV-GIPUZKOA | DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | 249,750 | PU |
| DE LORENZO DE URIEN, AGUSTIN IGNA | A02EU024 | 510942 | OBRA ERAI. ARLO-ARD.<br>RES. ÁREA OB. Y CON. | 3 | INGURUMENA, LURRALDE<br>MEDIO AMBIENTE, PLAN | ETXEBIZITZA ETA ARKI<br>DIRECCIÓN DE VIVIEND | VITORIA-GASTEIZ | 315,750 | PU |
| EGUIARA GARAY, IGNACIO | A02EU028 | 511392 | TRA.-IKER. ARLO-ARD.<br>RESP. ÁREA INV. TRÁ. | 2 | SEGURTASUNA<br>SEGURIDAD | TRAFIKO ZUZENDARITZA<br>DIR. TRAFICO | VITORIA-GASTEIZ | 277,800 | PU |
| GARMENDIA BON, MIKEL | A02EU024 | 510942 | OBRA ERAI. ARLO-ARD.<br>RES. ÁREA OB. Y CON. | 2 | INGURUMENA, LURRALDE<br>MEDIO AMBIENTE, PLAN | ETX.LURR ORD-BIZKAIA<br>DEL TER.VIV. BIZKAIA | BILBAO | 201,350 | PU |
| LOPEZ DE AGUILETA SALAZAR, LUIS I | A02EU027 | 511031 | GARRAIO-AZPIE. ARD.<br>RESP. INF. DE TRAN. | 2 | EKONOMIAREN GARAPENA<br>DESARROLLO ECONÓMICO | GARRAIO PLANG. ZUZ.<br>D. PLANIF.TRANSPORTE | VITORIA-GASTEIZ | 257,875 | PU |
| MONJAS RUBIO, APARECIDA PILAR | A02EU024 | 510942 | OBRA ERAI. ARLO-ARD.<br>RES. ÁREA OB. Y CON. | 4 | INGURUMENA, LURRALDE<br>MEDIO AMBIENTE, PLAN | ETXEB.LURR.ORD-ARABA<br>DEL.TER.VIV.ALAVA | VITORIA-GASTEIZ | 261,250 | PU |

ESLEIPEN EDO ANTOLAMENDU ZIOAK / MOTIVOS DE ADJUDICACIÓN U ORDENACIÓN

| | |
|---|---|
| AM | Ezabatutako Lanpostua<br>Plaza Amortizada |
| AN | Antzinatasunagatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Antigüedad |
| CU | Ikastaroengatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Cursos |
| DI | Irakasle lana-ikerketarengatiko puntuazioa<br>Puntuacion Docencia-Investigación |
| EU | Hizkun. Eskakiz.gatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Perfil |
| F1 | Eskabideko Kidearen antzinatasuna-data<br>Fecha antigüedad en el cuerpo de la solicitud |
| F2 | Karrerako funtzionarioaren gisa (edozein kidegotan) antzinatasuna data<br>Fecha antigüedad como funcionario de carrera (en cualquier cuerpo) |
| F3 | Azken behin-betiko lanpostua hartzeko data<br>Fecha Toma de posesión en el último puesto definitivo |
| FI | Adm.an Sartu zeneko Eguna<br>Fecha Ingreso Admon. |
| GR | Graduagatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Grado |
| ID | Hizkuntzengatiko puntuazioa<br>Puntuacion Idiomas |
| LI | Berdintasunerako Legearengatiko puntuazioa<br>Puntuacion Ley de Igualdad |
| PE | Berariazko merezimenduengatiko puntuazioa<br>Puntuación Meritos Específicos |
| PG | Merezimendu orokorrengatiko puntuazioa<br>Puntuación Meritos Generales |
| PP | Probarengatiko puntuazioa<br>Puntuación Prueba |
| PU | Puntuazioa (guztira)<br>Puntuación Total |
| TI | Titulazioengatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Titulaciones |
| TR | Egindako Lanarengatiko Puntuazioa<br>Puntuacion Experiencia |